

## 2023KO SAN SILVESTREKO HAUR LASTERKETAREN ARAUDIA

Vitoria-Gasteizko San Silvestreko XXXIX. Haur Lasterketako parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, probaren araudia onartu beharko du.

**Irakur ezazu, mesedez, arauak zein diren jakiteko.**

Arabako Atletismo Federazioak Vitoria-Gasteizko San Silvestreko XXXIX. Haur Lasterketa antolatu du 2023ko abenduaren 31rako.

1. 2009an edo hortik aurrera jaiotako edozein atletak parte hartu ahalko du lasterketan, aurretik izena emanda. Ibilbidea 1,3 kilometrokoa izango da, asfaltoan oso-osorik; dena den, antolatzaileek aukera izango dute zirkuituan aldaketaren bat egiteko, baldin eta egoerak hala eskatzen badu. Gehienez, 800 dortsal banatuko dira.

2. IZENA EMATEKO, <http://www.mediamaratonvitoriagasteiz.com/> webgunera jo behar da, abenduaren 15etik abenduaren 28ra, egun hori barne. Kreditu- edo zordunketa-txartelaz ordaindu beharko da, izena ematen den unean bertan.

Behin izena emanda, ez da dirua itzuliko, eta ezingo da norbaiten inskripzioa beste norbaiten izenean jarri.

**IZENA EMATEKO PREZIOA: 2 euro**

3. DORTSALAK NON HARTU:

Lekua: Geroago jakinaraziko da.

Zer egunetan: abenduaren 29an eta 30ean

Zer ordutegitan: 10:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30era

4. ORDUTEGIA:

- 11:45h: Prebenjamín-Benjamín: (2014-2015-2016-2017 eta gero). (Pertsona heldu batek lagunduta korrika egin dezakete).

- 12:00: Alevín-Infantil-Cadete (2009-2010-2011-2012-2013). (Bidelagunik gabe).

Lasterketa Mendizabalako aparkalekuan hasiko da. Helmuga leku berean egongo da. Lasterketa bukatzeko, 15 minutu izango dira gehienez. Dortsala bularrean jarri beharko da, ondo ikusteko moduan, tolestu gabe. Ez da sailkapenik izango.

5. Arabako Atletismo Federazioko Epaille Batzordeak kontrolatuko du lasterketa.

6. Lasterketan parte hartzeak kalte-galerarik edo lesiorik eraginez gero –atletak bere buruari, atletak beste inori, edo beste edonork atletari–, antolakuntzak ez du bere gain hartuko horien erantzukizuna.

7. Izena emandako guztiek lasterketarako aseguru espezifikoa izango dute. Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko izena eman gabe korrika egiten dutenen erantzukizuna.

8. Parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, araudi hau onartu beharko du. Araudi honetan ezarri ez den guztian, Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkartearen (IAAF) araudiari men egingo zaio.

